

## 1.Saioa: Literatura: primeros escritos de la lengua vasca.



"(...) Si uero, quod Deus non patiat[ur] [non quieti] et mala opera exercimus [nos sificieremus] et plus pro carnis luxuria quam pro salute anime laboramus, timeo ne quando boni christiani cum angelis acceperint uitam eternam nos, quod absit, precipitemur **[guec ajutuezdugu]\*** [nos non kaigamus] jngeenna (...)"

(\*) **guec ajutuezdugu**: guk laguntzarik ez dugu.

1.- Testua zeri buruzkoa dela uste duzu?

2.- Lexikoa:

Zein hitz ezagutzen duzu?

3.- Zergatik uste duzue agertzen dela euskarazko esaldi hori latinezko testu horretan ("nosotros no tenemos ayuda" "on n'a pas l'aide" "we don't have any help" "wir haben keine Hilfe")?

4.- Badakizue non den San Millan de la Cogolla herria?

---

## BERNARD ETXEPARE

Bernart (Bernat edo Beñat) Etxepare (Sarasketa , 1480 ?-?) euskarazko lehen liburu inprimatuaren idazlea zen.

Nafarroa Beherekoa zen eta Garaziko eskualdekoa hain zuzen. Sarasketan jaio zela uste da, XV. mendearen azken hamarkadetan (1480an ?), eta bere bizimodurik gehiena ere Garazi aldean igaro zuen, Eiheralarreko erretore eta Donibane Garaziko bikario izan zelarik.

Bernart Etxepareri, Nafarroako erreinuan 1512tik aurrera izan ziren gerrak eta istiluak gertutik bizitzea tokatu zitzaion. Bere poema batean aitortzen du, espetxea ere ezagutu zuela. Atxilotzearen zergatiak ez daude oso garbi: batzuen iritziz, garai hartako gatazkan Gaztelako erregearen alde jokatu izana leporatuko zioten; beste batzuek, ordea, gartzelaratzeko arrazoiak politikoak baino gehiago moralak izango zirela uste dute.

Hala ere Etxeparek ozenki aldarrikatu zuen bere errugabetasuna. Harrez gero, bere poema liburua idatzi zuenean, argitaratu zioten. Sasoi hartarako ez zen gutxi euskarazko lehenbizikoa zela kontuan izanik.

Bordelen plazaratu zen 1545ean liburua, **LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE** izenburuarekin. Tituluan bertan, hitzaurrean eta amaierako poemetan nabarmen azaltzen du Etxeparek lehen euskal idazlea dela. Euskarari "kanpora, plazara dantzara" irtetzeko agintzen dio; eta euskaldunek ere bide berriak urra ditzatela nahi du, moldiztegiaren bitartez euren burua erakutsiz.

## KONTRAPASA

Heuscara ialgui adi campora.

Garaziko herria  
benedika dadila;  
euskarari eman dio  
behar zuen tornuia.

Euskara  
ialgi hadi .

Bertze jendek uste zuten  
ezin iskriba zaiteien;  
orai dute porogatu  
enganatu zirela.

Euskara  
ialgi hadi .

Bertzeak oro izan dira  
beren goien gradora;  
orai hura iganen da  
bertze ororen gainera.

Euskara  
ialgi hadi .

Orain dano egon bahiz  
inprimitu bagerik;  
hi engoitik ebiliren  
mundu guzietarik.

Euskara, euskara,  
ialgi hadi .

Euskara, euskara,  
ialdi hadi .

Euskara, euskara,  
ialgi hadi .

Euskara  
habil .

1.Saioa: Literatura: primeros escritos de la lengua vasca.

**CONTRAPAS**

Euskara,  
Sal fuera!

El pais de Garazi  
Bendito sea!  
El ha dado a la lengua vasca  
El rango que le corresponde.

Euskara,  
Sal a la plaza!

Las demás gentes creían  
Que no se podía escribir en ella.  
Ahora han constatado  
Que estaban engañadas.

Euskara,  
Sal al mundo!

Entre las lenguas gozabas  
De poca reputación;  
Pero ahora vas a tener  
Gran honor Entre todas.

Euskara,  
Camina por todo el mundo!

Todas las demás han alcanzado  
Su grado máximo;  
Ahora ella va a remontar  
Por encima de todas.

Euskara!

Todos apreciaban a los vascos  
Aun sin conocer su lengua,  
Ahora todos comprenderán  
Lo que es el euskara.

Euskara!

Si hasta ahora has permanecido  
Sin ser impresa,  
Desde hoy caminarás  
Por todo el mundo.  
Euskara!

Ninguna lengua  
Ni la francesa ni otra  
Resulta actualmente  
Comparable a la vasca.

Euskara,  
Sal a bailar!

**1.Saioa: Literatura: primeros escritos de la lengua vasca.**

---